

2016ko URTARRILAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **2 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2016ko urtarrilaren 28an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

| | |
|----------------------------------|--|
| Batzarburua | Xabier Txurruka Fernandez jn. |
| Bertaratutako zinegotziak | Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Imanol Lasa Zeberio jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Aitor Korta Etxabe jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and. |
| Idazkaria | Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and. |
| Kontu-hartzailea | Lioba Maiza Rekondo and. |

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzu ditu Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA

a) **2015eko abenduaren 30ekoa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

b) **2016ko urtarrilaren 14koa**

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- UDAL ORGANOEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) **Alkatetzaren dekretuak: 2015eko abenduaren 23tik 2016ko urtarrilaren 22ra arte**

Segidan, Alkatetzak 2015eko abenduaren 23tik 2016ko urtarrilaren 22ra arte erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) **Tokiko Gobernu Batzarra: 2015eko abenduaren 28tik 2016ko urtarrilaren 18ra arte**

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko abenduaren 28tik 2016ko urtarrilaren 18ra arte hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

3.- GAI HONEN BERRI JAKITEA

Ondoren, eta Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hitzez hitz ondoren jasotako erabakiaren berri eman dute:

– **0040 Dekretua. Lankidetzaren arloa kudeatzeko ardura**

Alkatetzaren 0040 Dekretua, 2016ko urtarrilaren 14koa:

“2015eko uztailaren 10eko 1022 Dekretuaren bidez, Alkatetza honek zinegotzi batzuei eman zien udal antolakuntzako arloak kudeatzeko ardura. Horien artean, LANKIDETZA arloa kudeatzeko ardura Gloria Vazquez Herranz zinegotziaren esku geratu zen.

Orain, PSE-EE udal taldeak eskatu du kudeaketa hori aldatzeko eta talde bereko Pablo Garcia Astrain zinegotziari emateko.

Hori horrela, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 15. artikuluan ematen dizkidan eskurantzak erabilita, **ERABAKI DUT:**

Lehena.- Bertan behera uztea 2015eko uztailaren 10eko 1022 Dekretuaren bidez Gloria Vazquez Herranz andreaki LANKIDETZA arloa kudeatzeko emandako ardura.

Bigarrena.- PABLO GARCIA ASTRAIN jaunari ematea Udaleko LANKIDETZA arloa kudeatzeko ardura, eskumenaren titulartasuna laga gabe.

Hirugarrena.- Ardura horrek eragina izango du ordezkariak zinegotzi izaera duen denboran. Dena den, edozein unetan eta baldintza formalak aurrez bete ondoren, kudeatzeko ardura aldatu edo baliogabetu ahal izango da.

Laugarrena.- Dekretu hau izendatutako ordezkariari jakinaraztea, ardura onar dezan. Udalbatzarrari honen berri ematea, hark egiten duen lehenengo osoko bilkuran; eta, laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratzea.

Bosgarrena.- Dekretu hau Alkatezaren ebazpen-liburuan transkribatuko da, eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina."

4.- INFORMAZIOA

a) Finantza eta aurrekontuei buruz: 2015eko 4. hiruhilekoa

Udalbatzarrak jakin berri du 2015eko laugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

b) Ordainketako batez besteko epeari buruz: 2015eko 4. hiruhilekoa

Halaber, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2015eko laugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- KOMUNIKAZIOA UDALBATZARRARI: GASTU ARAUA ETA AURREKONTUEN EGONKORTASUNA BETE EZ IZANA 2015eko EKITALDIKO KREDITU-ALDAKETAK ONARTZEAN

Ondoren, Udalbatzarrari jakitera eman zaizkio Kontu-hartzaitzak 2016ko urtarrilaren 25ean egindako txostenak: aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoak, eta Udalak onartu berri dituen aurrekontuaren likidazioaren zein kreditu aldaketen ondorioz egin beharrekoak zirenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6.- ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA

Udalaren helburua eta betebeharra da bere eskumeneko gaietan araudiak betearaztea, eta helburu hori lortzeko beharrezkoa da zigortzeko ahalmena aplikatzea. Ahalmen hori praktikan jartzeko, ordea, prozedura administratiboak ziurtatu behar du herritarren eskubideak bermatzen direla. Baina, aldi berean, beharrezkoa da ahaleginak egitea prozedura gehiegi ez zailtzeko eta korapilatzeko, ez herritarrarentzat ez administrazioarentzat.

Prozedura administratiboa arautzen duten araudiek aukera ematen dute prozedura laburtuak aplikatzeko, batik bat isun arinetan. Horrenbestez, Udalean tramitatzen diren prozedurak aztertu ondoren, prozedura laburtu berri bat abian jartzea proposatu da.

Horretarako beharrezkoa da ordenantza berri bat onetsi eta martxan jartzea. Ordenantza horren xedea izango da prozedura laburtu baten bitartez tramitatzea Zarauzko Udalaren zigor-ahalmena. Arin bezala kalifikatzen diren arau-hausteei bakarrik aplikatuko zaie ordenantza. Arau-haustek udal ordenantzetan jasotakoak izan daitezke edo baita beste administrazio batzuetako arauetan jasotakoak ere (baldin Udalak badu azken horiek zigortzeko ahalmena).

Prozedura laburtu hori, hala ere, prozedura arruntaren osagarri izango da. Interesdunak adierazten badu ez dagoela ados proposatutako zigorrarekin, prozedura arruntaren arabera tramitatzen jarraituko da.

Gobernantzako informazio-batzordeak aurrez ordenantzaren proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak aho batez

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako onespena ematea ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZari, Gobernantzako informazio-batzordearen irizpenean ontzat emandako testuaren arabera.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-tramitea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantza behin betiko onartutzat hartuko da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

ZIGORTZEKO AHALMENA ERABILTZEKO PROZEDURA LABURTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Udalak zigortzeko ahalmena du, hala xedatzen baitu 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatua). Prozeduraren berme-printzipioa ezartzean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak --Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak-- xedatzen du zigortzeko ahalmenaren erabilera legezko prozedura edo arauz jarritakoa bete beharko duela.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, honako lege honek arautzen du prozedura: 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa. Eta ordezkio izaeraz beste honek: 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, zigor-ahalmena erabiltzeko jardunbidearen erregelamendua onartzen duena. Azken horretan prozedura laburtu bat aurreikusten da, arau-hauste arintzat hartzen diren kasuetan.

Ordenantza honen xedea da, beraz, udal ordenantzetan arintzat tipifikatutako arau-hausteeetan Zarauzko Udalak zigortzeko duen ahalmenaren erabilera arautzea. Horretarako, prozedura laburtu berezi bat arautuko da.

Prozedura hori ezartzeak helburu zehatz bat du: ohikoak diren arau-hauste jakin batzuetan egin beharreko polizia-zeregina errazagoa izatea. Arau-hauste arinak ustez egiteagatik hasitako zigor-prozedura administratiboa gehiegi ez luzatzea lortu nahi da, izan ere, askotan prozedurak asko luzatzen dira, arau-hauste larri eta oso larrietan hasitako prozeduretan berme prozesalak eskaintzera zuzenduta dagoen prozedura bete behar izaten delako. Administrazioaren jarduna sinplifikatuko duten baliabideak jarri nahi dira, eta arau-hauste arinak ez egitea konbentzitu ere bai, horiek baitira ohikoak.

Prozedura berri honek berdin-berdin bermatzen ditu pertsona interesdunaren eskubideak, baina aukera ematen dio prozedura azkar bukatzeko eta diru-zigorraren hobari bat eduki ahal izateko, administrazioaren beste arlo batzuetan egiten den bezala. Hala ere, interesdunak zigor-proposamenarekin ados ez dagoela adierazten badu, gai horretan aplikatu beharreko legeetan araututako prozedura hastea bultzatu ahal izango du.

Horrenbestez, Zarauzko Udaletxeak ustezko arau-hauste arinen ondorioz hasten dituen zigor-espeditenteak, artikulua hauetan jasotako prozeduraren bitartez arautu ahal izango dira.

1. artikulua.- Ezarpen-eremua

Zigortzeko ahalmena erabiltzean, ordenantza honetan araututako prozedura laburtua aplikatuko da, bai indarrean dauden udal ordenantzetan bai beste erakunde batzuetako araudietan arau-hauste arin modura tipifikatutako gertaeretan. Eta azken kasu horretan, araudiak Udalarri zigortzeko ahalmena eman behar dio.

2. artikulua.- Prozeduraren hasiera

Arau-hauste arinen zigor-prozedura bi modutara has daiteke: a) ofizioz, 1. artikuluan deskribatutako arau-haustek izan daitezkeen gertaeren berri izan duen agintaritzak eskudunak hala erabakita; b) zaintza eta segurtasunaz arduratzen diren udaltzainek egindako salaketaren bidez.

3. artikulua.- Kautelazko neurriak

Udaltzainek kendu edo atzeman ahal izango dituzte, kautelaz, arau-hauste administratiboen xede diren elementuak, bai eta bestelako materialak edo erabilitako baliabideak ere. Gai espezifikoa arautzen duen arau juridiko bakoitzean aurreikusitako erabilera emango zaie objektu horiei.

4. artikulua.- Salaketen izaera

Udaltzainek salatu egin beharko dituzte euren zaintza, kontrol eta segurtasun funtzioen jardunean ikusten dituzten arau-haustek.

Agintaritzak izaera aitortuta duten funtzionarioek ikusitako gertakariak jasotzen dituzten dokumentu publikoek (legezko betebeharrak beteta formalizatzen direnek) proba-balioa izango dute salatutako gertakarietan, funtzionario horiek ahal diren proba-elementu guztiak aurkezteko duten betebeharrari utzi gabe.

5. artikulua.- Salaketen edukia

Salaketetan honako hauek jasoko dira: salatuaren edo salatuen nortasuna, gertaeraren zirkunstantzien kontakizuna eta lekua, data eta ordua. Salatzailea udaltzain bat bada, bere identifikazio-zenbakia ere adieraziko da.

Halaber, honako hauek jasoko dira: a) ustez hautsitako arauaren edo udal ordenantzaren agindua eta zenbakia; b) arau-haustea tipifikatzen duen arauan aurreikusitako zigorraren zenbatekoa; c) prozeduraren instrukzioaz arduratuko den organoa; d) eta haren ezespren-araubidea. Zigortzeko organo eskuduna zein den eta eskumen hori zein arauk ematen dion ere adieraziko da.

6. artikulua.- Salaketen baldintzak

Salaketa-txostenaren bina ale egingo dira. Bat salatuari entregatuko zaio, ahal bada, eta bigarrena instrukzioko bulego administratibo eskudunari igorriko zaio. Salatzaileak eta salatuak sinatuko dituzte txostenak. Azken horrek sinatzeak ez du esan nahi salaketa eragin duten gertaerekin ados dagoenik, baizik eta bere alea jaso duela. Baldin eta salatuak uko egiten badio sinatzeari edo ez badaki sinatzen, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoa betekoa da.

Salaketa-txostenean salatuari ohartaraziko zaio hamabost eguneko epea duela egoki iruditzen zaizkion alegazioak, dokumentuak edo informazioak aurkezteko eta, hala bada, frogaldia proposatu eta egiteko. Berariaz adieraziko zaio, baita, epe horretan prozeduraren hasieraren edukari buruzko alegaziorik egiten ez badu, ebazpen-proposamentzat hartu ahalko dela hasiera hori eta berehala organo eskudunari bidaliko zaiola, prozedura ebazteko.

Salatuari adieraziko zaio, baita ere, aukera duela bere erantzukizuna aitortzeko eta isuna ordaintzeko (9.b artikuluan aurreikusitako ondorioekin).

Organo instruktoreak jarraibideak edo zirkularrak eman ahalko ditu, bai salaketak egiteko formularioei buruz, bai organo instruktoreak horien tramitazioa onar dezan formularioek eduki beharko dituzten gutxieneko baldintzei buruz.

7. artikulua.- Salaketen tramitazioa

Udaltzainak jarritako salaketa instrukzio-bulegoan jaso ondoren, gertakariak sailkatu eta isunaren graduazioa egingo da, edo udaltzain salatzaileak salaketan jarritako sailkapena eta isuna egiaztatuko dira. Ondoren tramitatu egingo da edo, bestela, organo instruktoreak agintaritza eskudunari proposatuko dio ebazpen batean aitortzea arau-hausterik ez dagoela (baldin salatutako gertakariak ez badira arau-haustea) edo isunik ezin dela jarri (baldin egilea ezin bada identifikatu).

Instruktoreak egindako sailkapena eta graduazioa bat ez badatoz udaltzainak bere salaketan adierazitakoekin, bigarren aldiz jakinaraziko zaio ustezko arau-hausleari prozeduraren hasiera. Eta 15 eguneko epea emango zaio ordenantza honetako 5. artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

8. artikulua.- Salaketen jakinarazpena

Salatuari unean bertan jakinaraziko zaio salaketa. Ordenantzako 5. artikuluan adierazitako datu guztiak sartuko dira salaketan, eta adieraziko zaio datu horiekin irekita gelditzen dela espediente eta, ondorioz, hamabost eguneko epea edukiko duela bere defentsan egoki iruditzen zaizkion agiri eta informazioak ekartzeko eta, hala bada, frogaldia proposatu eta egiteko.

Hala eta guztiz ere, beranduago jakinarazitako salaketak edo akordioak ere baliozkoak izango dira, ustezko arau-hauslea ez dagoenean edo gertaera salatzeke unean ezin duenean egon, edo momentuko zirkunstantziek jakinarazpena unean bertan egitea eragozten dutenean.

9. artikulua.- Prozeduraren instrukzioa

a) Udaltzain salatzaileak ez badio jakinarazpena egiten ustezko arau-hausleari, instrukzioko organo eskudunak (zigor-organoko eskudunak izendatutakoak) prozeduraren hasiera jakinarazi beharko du, eta hamabost eguneko epea emango zaio ustezko arau-hausleari bere defentsan egoki iruditzen zaizkion agiri eta informazioak ekartzeko eta, hala bada, epe horretan frogaldia proposatu eta egiteko.

b) Salatuak bere erantzukizuna aitortu ahalko du, salaketaren jakinarazpena edo prozeduraren hasiera egin eta hurrengo hamabost egun naturalen buruan. Horretarako, isuna bere borondatez ordainduko du, ohiko ordainketak egiteko Udalak jarritako bitarteko bidez. Halakoetan prozedura arau-hauslea bukatutzat emango da, ondorio hauekin:

- Zigor ekonomikoa % 50ean murriztuko da.
- Uko egingo zaio alegazioak aurkezteko aukerari. Alegazioak egiten badira, aurkeztu izan ez balira bezala hartuko dira.
- Ordainketa egiten den egunean prozedura amaitu egingo da, berariazko ebazpena egin beharrik gabe.
- Bide administratiboa bukatu egingo da. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakarrik errekurritu ahalko da.

- Ordainketa egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea.
- Zigorra irmoa izango da bide administratiboan, ordainketa egiten den unetik, eta hurrengo egunetik izango ditu bere ondorio guztiak.

c) Ordainketa osorik egiten ez bada eta, beraz, salaketan adierazitako zenbatekoaren % 50era iristen ez bada, ez da aurrekoa aplikatuko. Kontura egindako diru-sarrera modura hartuko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du. Halakoetan ebazpenak adierazten badu erantzukizunik ez dagoela, aurretik sartutako diru-kopurua itzuli egingo da.

d) Salaketa jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epea pasatu bada eta artikulua honetako b) atalean aurreikusitako epean isuna ordaindu ez bada, aurkeztutako alegazioak (halakorik balego) eta egindako frogak (halakorik egin balitz) ikusita, instrukzio-organoko eskudunak ebazpen-proposamena egingo du, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Edo ikusten badu gertakariok arau-hauste larriak edo oso larriak izan daitezkeela, erabakia hartuko du tramitazioak prozedura orokorraren arabera jarrai dezan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean --Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa-- aurreikusitakoaren arabera. Kasu horretan interesdunari hori jakinaraziko zaio, eta bost eguneko epea emango zaio frogaldia proposa dezan (egoki iruditzen bazaio) eta aipatutako legean aurreikusitako prozeduraren arabera egin dadin frogaldi hori.

e) Epe horretan alegazioak aurkezten badira, horiek aztertu ondoren eta proposatutako frogaldiak egin ondoren (halakorik balego), ebazpen-proposamena egingo zaio zigortzeko organo eskudunari, ebazpena egin dezan hamar eguneko epean.

f) Salaketak zigor-prozeduraren ebazpen-proposamenaren ondorioak izango ditu, baldin salatuak ez badu alegaziorik aurkezten emandako epean, edo isunaren zenbatekoa ez badu ordaintzen salaketaren edo prozeduraren hasieraren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost egun naturaleko epean.

10. artikulua.- Ebazpena

a) Organo eskudunak ebazpena egingo du, arrazoitua izango dena. Ebazpenean, interesdunek planteatutako kontu guztiak eta prozeduran bertan sortutakoak erabakiko ditu.

b) Ebazpenean ez dira onartuko prozeduraren instrukzio-fasean zehaztu gabeko gertakariak.

c) Ebazpena interesdunari jakinarazi behar zaie. Prozedura hasi zenetik sei hilabete pasatu badira eta epe horretan ebazpena eman ez bada, prozedura iraungi egingo da, lege-mailako arau batek beste iraungitze-data bat jartzen ez badu behintzat. Dena den epeen kontaketa horretan ez dira zenbatuko balizko etenak (interesdunari leporatzekoak) edo prozeduraren etenaldiak (hala aitortutakoak).

11. artikulua. Zigorra zehaztea

a) 2/1998 Legearen 14. artikuluan jarritako irizpideak hartuko dira kontuan zigorraren zenbatekoa zehaztean.

b) Hiru zati berdinetan zatituko da zigorraren zenbatekoa zehazteko aurreikusitako tartea. Zirkunstantzia larriak edo aringarriak ez bada, erdi-mailako zenbateko minimoaren isuna jarriko da.

c) Zirkunstantzia aringarriak edo larriak daudenean, maila minimo edo maximoari dagokion tartean jarriko da isuna, hurrenez hurren.

d) Ordenantza batzuetan, zenbateko zehatzak aurreikusita daude arau-hauste jakin batzuetarako. Kasu horietan ordenantzan jarritakoa beteko da, zirkunstantzia aringarriak aplikatzearen emaitzari utzi gabe.

e) Arau-hauste zehatz batzuentzat berariazko kopurua zehaztu ahal izango da Alkatezako Dekretu bitartez.

12. artikulua.- Zigortzeko prozedura laburtuaren errekurtsioak

a) Zigor-ebazpenak administrazio-bidea bukatzen du, eta horren kontra dagozkion egintzak erabili ahalko dituzte interesdunek jurisdikzio eskudunaren aurrean. Hala eta guztiz ere alde aurretik berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko da, aukerakoa, baldin zigor ekonomikoaren zenbatekoaren murrizketaren onuradun izan ez bada.

b) Aukerako berraztertze-errekurtsoa jartzeak ez du inpugnatutako egintza betetzea etengo.

c) Errekurtsoaren ebazpenean ez dira kontuan hartuko jatorrizko prozeduran errekurtsogileak aurkeztutako gertakariak, agiriak eta alegazioak.

d) Artikulu honetan araututako berraztertze-errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, hilabeteko epean berariazko ebazpenik ematen ez bada. Administrazioarekiko auzi bidea, ordea, irekita egongo da.

Xedapen gehigarria

Udal organoen ahalmena izango da ordenantza honetan jarritako prozedura laburtua aukeratzea, udal ordenatzetan edo beste araudi aplikagarri batean jarritako prozeduraren osagarri modura. Eta hori guztia espediente bat ohiko zigor-prozeduraren bidez tramitatzeke aukerari utzi gabe, bereziki prozedura laburtu hau aplikatzea zaila edo ezinezkoa den kasuetan.

Xedapen iragankorra

Indarrean sartu ondoren egindako arau-hausteei aplikatuko zaie Ordenantza hau. Aurreko araudi bat betez hasitako prozedurak araudi horren arabera arautuko dira, ebatzi arte.

Azken xedapena

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

7.- ARTE SORKUNTZAREN EDOZEIN ARLOTARA ZUZENDUTAKO "DANIEL TXOPITEA" BEKA EMATEKO OINARRI OROKORRAK ETA BERARIAZKO OINARRIAK. HASIERAKO ONESPENA

2012ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak IKUSI-ARTE ARLOKO ARTE SORKUNTZARAKO "DANIEL TXOPITEA" BEKA EMATEKO OINARRI OROKORRAK ETA BERARIAZKO OINARRIAK onartu zituen; eta iragarkia 2012ko urriaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (189 zk.) argitaratu zen.

Geroztik Udalak hiru deialdi egin ditu, eta izandako emaitzak ez dira espero bezain onak. Hobetzeko asmoarekin, erabaki du beste oinarri batzuk egitea eta bekak barne hartuko dituen artearen alorren esparrua zabaltzea.

Hori horrela, Kultura Departamentuak DANIEL TXOPITEA beka berria jarri nahi du martxan, artearen edozein alorretan sorkuntza proiektuak bultzatzeko.

Aurrekoa ikusita, eta 2016ko urtarrilaren 21ean egindako bileran Kultura informazio-batzordeak (aho batez) aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoaz,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Hasierako izaeraz onartzea arte sorkuntzaren edozein arlotara zuzendutako "daniel txopitea" beka emateko oinarri orokorrek eta berariazko oinarriak, 2012ko irailaren 25ean egindako osoko bilkuran onartutako oinarrien orde. Oinarri hauek Udal Ordenantzaren zehazten dena betetzen dute.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea iragarki-taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien zabaltzen diren egunkarietako batean argitaratuko den iragarkiaren bidez jakinaraziko da.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, oinarriak behin betiko onartutzat hartuko dira, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

KULTURA DEPARTAMENTUAK KUDEATZEN DITUEN PROGRAMEN KONTURA EMANGO DIREN DIRU-LAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK.

OINARRI OROKORRAK

1. diru-laguntza eskatzeko baldintzak.

1. Diru-laguntza hauen onuradun izaera izango du diru-laguntzaren oinarri den jarduera egin behar duen pertsona fisikoak, edota diru-laguntza jasotzeko zilegi egiten duen egoeran dagoenak. Pertsona horrek, gainera, diru-laguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinak ezartzen dituen baldintza zehatzak bete beharko ditu.

2. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzen onuradun ezin dira izan Zarauzko Udaleko Udal Ordenantzako, diru-laguntzei buruzkoa, 11. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean diren pertsona. Ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak ezarritakoari jarraikiz, sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenak ere.

3. Onuradun izaera lortzeko debekuetan sarturik ez egoteari buruzko egiaztapena egin dezakete pertsonak lekukotza judizialaren bidez edo ziurtagiri bidez, kasuen arabera, eta agiri horiek eskuratu ezin direnean, ordeztu daitezke herri administrazio baten edota notario baten aurrean egindako ardurapeko aitopenen bitartez.

diru-laguntzekin batera aurkeztu beharreko zergei buruzko edo Gizarte Segurantzako ziurtagiriak ordeztu ahal izango dira, interesatuek berariaz hartarako baimena emana duten kasuetan, ziurtagiri horiek emateko eskumena duten entitateek diru-laguntza kudeatzeko erantzukizuna duen organoari behar diren datuak zuzenean emanda.

2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Oinarri hauen ondorioetarako, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundu asmo den jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, eta berariazko oinarri erregulatzailaetan ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundutako elementuen erosketa kostuak ezin dezake inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

2. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera egiteko finantza gastuak, zuzenbide edo finantza aholkularitzako gastuak, notario eta erregistro gastuak, eta peritu gastuak nahiz administrazioko gastu bereziak diruz lagungarriak izan daitezke subentzionatutako jarduerarekin zerikusi zuzena badute eta hura egoki prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira.

3. Zeharkako kostuak. Proiektuari zeharkako kostuen %5 leporatzea onartuko da. Gastu horiek onartuko dira, soil-soilik, gastuen aurrekontuan berariaz izendaturik aurkezten badira.

Zeharkako kostu horiek modu eraginkorrean egin behar dira, diruz lagundutako proiektuarekin lotura zuzena izan behar dute eta behar bezala egiaztatatu behar dira.

Halaber, zeharkako kostuetan portzentaje handiagoa onartu ahal izango da, betiere diruz lagundutako aurrekontuari egozten zaion portzentaje hori finkatzeko kostuen kalkulua behar bezala egiaztatzen bada, eta aurretik aipatutako baldintzak betetzen badira.

3. Eskaerak.

1. diru-laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdiaren bitartez.

2. Eskaerak aurkeztu behar dira agiri hauekin batera:

a) Eskaera orri ofiziala, behar bezala beterik.

b) Eskatzailearen nortasunaren egiaztagiraren fotokopia (nortasun agiria, dagokion erregistroan inskribatutako eraketa eskriturak, dagokion erregistroak emandako ziurtagiria eta abar).

c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak. Horren gainean, interesatuek adierazpen bat izenpetu dezakete, berariazko baimena emanez ziurtagiri horiek egin behar dituzten entitateek behar diren datuak Kultura departamentuaren esku utz ditzaten.

d) Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, ardurapeko aitortpena.

e) Eskatzaileak irekitako kontu korrante baten jabetasuna ziurtatzen duen agiria, diru etxe batek emana. Agiri hori aurkeztu beharko da, bakar-bakarrik, diru-laguntza bat lehenengo aldiz eskatzen denean edo kontuaren ezaugarriak aldatu direnean.

f) diru-laguntza eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txosten zehatza.

g) Proiektuaren gastu eta diru sarreraren aurrekontu zehatza. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren eta gastuen kopuruak berdinak izango dira, eta diru-sarreraren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da. Aurrekontua orekatua ezipada eskaera automatikoki bertan behera geratuko da.

3. Oinarri hauek arautzen duten esparruan aurreko urteetan diru-laguntzarik eskuratu dutenek ez dute aurreko atalaren b) eta c) puntuetan xedatutako agiriak aurkeztu beharrik.

4. Eskatzen diren agiritakoren bat Zarauzko Udaleko organoren baten esku baldin badago, diru-laguntzaren eskatzaileak erabil dezake 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluko f) paragrafoan xedatzen duena, baina agiriak zein egun, organo edo bulegotan jaso edo egin ziren adierazi beharko du, betiere dokumentu horiek loturik diren prozedura bukatu eta bost urte baino gehiago igaro ez bada.

5. Eskaerak, dagokion dokumentazioarekin batera, Zarauzko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira

Halaber, eskaerak aurkez daitezke baita ere 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazitako beste bide eta lekuetan.

6. Eskaera orria edo harekin batera aurkeztu beharreko agiriak akatsez edo osatu gabe baldin badaude, interesatuari hamar eguneko epea emango zaio akatsak zuzentzeko; epe hori amaituta horrela egiten ez badu, bere eskaera bertan behera uzten duela iritziko zaio, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan jasotakoaren arabera hartutako ebazpenaren bitartez.

7. Eskaerak aurkezteko epeak urteko deialdian zehaztuko dira.

4. Emateko prozedura.

Laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbideaz emango dira. Ondorioz, kasu bakoitzean ezarritako balorazio irizpideen arabera, diruz lagundu nahi diren jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatzeko moduko eskaera kopurua hautatuko da.

5. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzea.

1. Oinarri hauetan jasotzen diren diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako laguntza, diru-laguntza, sarrera edo baliabideekin, hurrengo paragrafoan xedatzen dena baztertu gabe.

2. diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da, bakarrik nahiz beste diru-laguntzekin batera, aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagokoa izan.

6. Diru-laguntzen zenbatekoa.

diru-laguntzen zenbatekoak diru-laguntza lerro bakoitzaren berariazko oinarrietan aipatzen direnak izango dira.

7. Izapidea.

Instrukzioa eta proposamena Zarauzko Udaleko Ordenantza Orokorrean 17. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

Organo eskudunak:

- Instrukzioa: Kultura arduraduna
- Balioespen Batzordea: Kide anitzeko organo bat, Kultura batzordeko kideek osatutakoa.

Beketan, ebaluazio batzordeak disziplina bakoitzeko espezialisten aholkularitza izango du.

Beharrezko litzatekeen edozein gauza argitzeko edo elkarrizketa pertsonalak edo proba praktikoak egiteko deitu ahal izango zaie hautagaiei eta eskatzaile guztiek egin beharrekoak izango dira, denek batera eta deialdi bakarrean; eguna eta lekua izangai bakoitzari banan-banan adieraziko zaio. Proba praktikoa ez egiteak baztertzeko automatikoa dakar eta espedientea artxibatzea ere bai, aurrez ebazpena emanda 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan aurreikusitako eran.

Ebaluaketaren emaitza beka ez ematekoa baldin bada, eman beharreko ebazpenaren aurretik, interesatuei 10 eguneko epea eskainiko zaie entzuteko tramitean nahi dituzten alegazioak aurkez ditzaten.

8. Ebazpena.

Organo eskuduna (ebazpena): Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari egokituko zaio, une bakoitzean indarrean diren eskumenei eta aldi baterako eskuordetzeri jarraiki, Udalaren administrazio-antolamenduan

1. Prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori kontatzen hasiko da, kasu bakoitzean, eskaerak aurkezteko epea hasten denetik aurrera.

2. oinarri hauetan aurreikusten diren beka emateko jardunbidearen barnean gerta daitezkeen ustezko egintzak ezestekotzat hartu behar dira, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 44. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Prozeduraren ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeko 58. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta bideratzea egingo da lege horretako 59. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera; betiere, emandako diru-laguntzak Zarauzko Udalaren webgunean argitaratzea baztertu gabe.

9. Onuradunaren betebeharrak.

1. Zarauzko Udaleko Diru-laguntzei buruzko Udal Ordenntzanezarritako betekizunez gain, oinarri orokor hauetan eta diru-laguntza mota bakoitzaren berariazko oinarri erregulatzaileretan aurreikusitakoak bete beharko dituzte onuradunek.

2. Bereziki, diru-laguntzaren xedeko jardueri buruzko publizitatean Zarauzko Udaleko Kultura departamentuaren lankidetzara adieraziko da, euskarari lehentasuna emanez.

3. Halaber, Zarauzko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko onartua duen politikaren barruan eta euskararen erabilera normalizatzeko 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Legeari jarraikiz, diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsona edo entitateek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jarduerekin lotuta dauden agerpen publiko orotan.

10. Diru-laguntzak ordaintzea.

Oro har, diru-laguntzak ordainduko dira %60 ebazten denean eta gainontzeko %40 diruz lagundutako jarduerara amaitu eta hori behar bezala zuritu ostean, 11. puntuaren ezarritakoari jarraikiz zuritu ere.

Dena den, zuritzen bada diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa dela, ordainketa aurreratua egin ahal izango dira diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan.

11. Diru-laguntzak zuritzea.

1. Arau orokor gisa, oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzak era honetan ordainduak izango dira, diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla dokumentu bidez zuritu beharko da, oinarri honetan adierazten den eran eta epeetan.

2. Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen hartzaileek laguntza jaso ahal izateko agiri hauek aurkeztu behar dituzte alde aurretik:

a) Jarduketara memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduerara burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita. Gainera, bidezko denean, partaideen datuak adieraziko dira, sexua aipatuta eta, ahal den neurrian, datu horien azterketa eta interpretazioa.

b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi behar dira. diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

c) Diruz lagundutako jarduketan finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Gastu orokorrak eta zeharkakoak banatzeko irizpideak, %5 baino gehiagoko portzentajea onartu behar bada.

e) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

3. diru-laguntza ematen duen organoak behar adina frogagiri egiaztatuko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela zentzuz agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastu frogagiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

4. oinarri honen 2. atalean adierazten diren agiriak aurkezteko gehienezko epea izango da deialdiaren hurrengo urteko martxoaren 31a, diru-laguntza bakoitzaren eranskinean beste epe bat xedatzen ez bada.

5. diru-laguntza eman duen organoak egiaztatuko du diru-laguntzaren zuritzea egokia izan ote den, eta diru-laguntza emateko oinarrian izan zen jarduera gauzatu edota helburua bete ote den.

12. Diru-laguntzak itzultzea.

Jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira eta diru-laguntza ordaindu zenetik itzulketa egin beharra erabakitzen den bitarteko berandutza interesak ordaindu beharko dira Zarauzko Udaleko Diru-laguntzei buruzko Udal Ordentzaren 24. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

13. Dirua itzultzeraren behartuak.

1. Aurreko oinarrian azaldutako kasuetan, onuradunek jasotako diru kopurua osorik edo zati batean itzuli beharko dute, gehi diru kopuru horri dagozkion berandutza interesak. Beharkizun horrek ez du zer ikusirik, hartara iritsiz gero, ezar daitezkeen zigorrekin.

2. Dirua itzultzeko beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak, urratutako beharkizunak betetzeko beren ardurapeko beharrezko ekintzak egiten ez badituzte, ez betetzea gertagarri egiteko erabakiak hartzen badituzte edota beren mendekoenei leku ematen badiete.

3. Halaber, jarduerari utzitako pertsona juridikoen lege ordezkariak dutenak, aplikagarri zaizkien xedapen legal edo estatutarioen arabera, haien itzulketa beharkizunaren erantzule izango dira subsidiarioki.

14. Araubide juridikoa.

Oinarri berezi hauek aurrekusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko BOE); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko BOE); eta Zarauzko Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak emateko Ordenantza Orokor arautzailea.

BERARIAZKO OINARRIAK

ARTE SORKUNTZAREN EDOZEIN ARLOTARA ZUZENDUTAKO "DANIEL TXOPITEA" BEKA EMATEKO OINARRIAK.

1. Xedea.

Oinarri hauen xedea ondorengo beka ematea arautzea da:

– Edozein arloko arte sorkuntzarako beka, CAPVko artegileei beraien banaka/taldeko formakuntza, ikerketa edo/eta burutzeko proiektu sortzeari (ez proiektu teorikoak) aukera emateko.

2. Arloak.

2.1. Beka honetan edozein arloko sorkuntzaren baitan arte sorkuntzako prozesuak jasotzen dira. Kanpo geratzen dira hirugarren baten enkarguz egindako obrak, ekoizkin didaktiko hutsak, publizitario eta dokumentalak eta lehendik egindako originalak euskarri elektronikoetan editatzea. Era berean, kanpo geratzen dira, Euskal Autonomi Erkidegoaren barruan beste deialdi batzuetan edo produkzioarako beste laguntza batzuetan toki egokiagoa edo berariazkoa duten ikus-entzunezko nahiz multimedia alorreko ekoizpenerako proiektuak.


| | | | | | | | | | | | | | | |
|---------|------------------------------------|---|---|---|----|----|-----------|----|-----|--|---|------------|---|---|
| 1.3.129 | Eskola instalazioetako zaintzailea | 1 | E | L | AP | 14 | 14.194,51 | 22 | 100 | | 1 | 2007/02/14 | 2 | 1 |
|---------|------------------------------------|---|---|---|----|----|-----------|----|-----|--|---|------------|---|---|

BEHIN-BEHINEKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | D O | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|-------|---|-----|----|---|----|--------|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----|---------------|
| 1.2.7 | Alkatearen idazkaria | 1 | S | L | C1 | 20 | 10.857,26 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |
| 1.2.9 | Komunikazio eta Protokolo arduraduna | 1 | S | L | A1 | 24 | 15.045,53 | | 535 | | 3 | | 1 | 1 |
| 1.2.8 | Talde politikoko idazkaria EAJ-PNV (% 100) | 1 | S | L | C2 | 17 | 17.976,18 | | 200 | | 3 | | 1 | 1 |
| 1.2.8 | Talde politikoko idazkaria PSE-EE (% 69,03) | 1 | S | L | C2 | 17 | 17.976,18 | | 200 | | 3 | | 1 | 1 |

ALDI BATERAKO LANPOSTUAK

DEPARTAMENTUA: IDAZKARITZA (02)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|--------|---|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----|---------------|
| 1.4.9 | Errefortzuko administraria (6 hilabete) | 1 | E | | C1 | 20 | 16.368,04 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |
| 1.4.22 | Zerbitzu juridikoetako administraria (ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena) | 1 | E | | C1 | 20 | 15.010,60 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |

DEPARTAMENTUA: ZERBITZU EKONOMIKOAK/KONTU-HARTZAILTZA (0301)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|-------|----------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----|---------------|
| 1.4.9 | Errefortzuko administraria | 1 | E | | C1 | 20 | 13.531,42 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |

DEPARTAMENTUA: HERRILAN, AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK (04)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|--------|------------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----|---------------|
| 1.4.16 | Herrilaneke teknikari laguntzailea | 1 | E | | C1 | 20 | 16.368,04 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |

DEPARTAMENTUA: GIZARTE ZERBITZUAK (05)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|-------|--------------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----|---------------|
| 1.4.6 | Immigrazioko eta kultur aniztasuneko | 1 | E | | A2 | 22 | 15.160,48 | | 400 | | 4 | 2014/12/17 | 1 | % 5 |

| | | | | | | | | | | | | | | |
|--------|--------------------------------------|---|---|--|----|----|-----------|--|-----|--|---|--|---|---|
| | teknikaria | | | | | | | | | | | | | |
| 1.4.13 | Gizarte langilea (genero-indarkeria) | 1 | E | | A2 | 22 | 15.160,48 | | 432 | | 3 | | 1 | 1 |

DEPARTAMENTUA: EUSKALTEGIA (07.02)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISP. |
|--------|----------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|--------------------|--------|-----------|----|-----------|
| 1.4.3. | Euskaltegiko irakaslea (% 100) | 3 | E | | A2 | 22 | 13.473,72 | | 400 | | 4 (TP) | | 2 | 1 |
| 1.4.3. | Euskaltegiko irakaslea (% 66,66) | 2 | E | | A2 | 22 | 13.473,72 | | 400 | | 4 (TP) | | 2 | 1 |
| 1.4.3. | Euskaltegiko irakaslea (% 50) | 2 | E | | A2 | 22 | 13.473,72 | | 400 | | 4 (TP) | | 2 | 1 |
| 1.4.3. | Euskaltegiko irakaslea (% 30) | 1 | E | | A2 | 22 | 13.473,72 | | 400 | | 4 (TP) | | 2 | 1 |
| 1.4.3. | Euskaltegiko irakaslea (% 37) | 1 | E | | A2 | 22 | 13.473,72 | | 400 | | 4 (TP) | | 2 | 1 |

DEPARTAMENTUA: UDALTAINGOA (09)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISP. |
|-------|-------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|--------------------|----|-----------|----|-----------|
| 1.4.1 | Udako udaltzaina (4 hilabete) | 12 | E | | C2 | 16 | 14.205,21 | | 200 | | 2 | | 3 | 1 |
| 1.4.4 | Bitarteko udaltzainak | 8 | E | | C1 | 20 | 18.054,66 | | 300 | | 2 | | 3 | 1 |

DEPARTAMENTUA: TURISMOA, EKITALDIAK ETA JAIK (15)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISP. |
|--------|-------------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|--------------------|----|-----------|----|-----------|
| 1.4.30 | Turismoko laguntzaileak | 2 | E | | C2 | 17 | 17.976,18 | | 200 | | 3 | | 2 | 1 |
| 1.4.14 | Ekitaldi eta jaietako administraria | 1 | E | L | C1 | 20 | 15.010,46 | 12 | 300 | | 3 | | 2 | % 20 |

DEPARTAMENTUA: HERRITARREN ARRETA ZERBITZUA (16)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISP. |
|--------|-----------------------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|--------------------|----|-----------|----|-----------|
| 1.4.26 | Informazioa kudeatzeko teknikaria | 1 | B | | C1 | 20 | 15.010,46 | | 300 | | 3 | | 1 | 1 |

DEPARTAMENTUA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (17)

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISP. |
|--------|--|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|--------------------|----|-----------|-------|-----------|
| 1.4.21 | Informazio eta Komunikazio Teknologietako (IKT) arduraduna | 1 | B | | A1 | 26 | 17.340,46 | | 545/548 | | 4 | | 1 / 2 | 1 |

“ZARAUTZ-LUR SA” UDAL SOZIETATEA

LAN KONTRATUDUN LANGILEENTZAT GORDEAKO LANPOSTUA

| KOD. | IZENA | DOT | LM | H | ST | DO | BO (14) | E/A | Titulazioa | BALDINTZA BEREZIAK | HE | DER. DATA | LA | DED DISPN. |
|--------|----------------------|-----|----|---|----|----|-----------|-----|------------|-----------------------|----|--------------|----------|---------------|
| 1.11.2 | Arduradun juridikoa | 1 | B | I | A1 | 24 | 24.644,25 | | 570 | | 4 | 2009/02/27 | 2 | 2 |
| 1.11.3 | Administraria (% 50) | 1 | E | L | C1 | 16 | 12.497,59 | | 200 | | 3 | 2014/12/17 | 2 (% 50) | 1 |

9.- ALDAPETA. SANTA ANA EGOITZA FUNDAZIOAK, ZARAUTZ LUR SA UDAL SOZIJETATEAK ETA ZARAUZKO UDALAK SINATU BEHARREKO HITZARMENA

2014an Santa Ana Egoitza Fundazioak demanda aurkeztu zuen Zarautz Lur SA sozietate publikoaren eta Zarauzko Udalaren aurka, 2009an sinatu ziren salerosketa kontratu bat eta hitzarmen bat ez betetzeagatik.

Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Auzitegiak 2015eko ekainaren 30ean emandako epai batean ontzat eman zuen demanda, zati batean. Horren ondorioz, Zarautz Lur eta Zarauzko Udala behartuta daude diru-kopuru jakin bat ordaintzera Fundazioari.

Aldeen artean egon diren elkarrizketetan, Udalaren, Zarautz Lur sozietatearen eta Fundazioaren ordezkariak adierazi dute nahiago dutela 2009an adostutakoa bete eta horretarako prest daudela. Helburu horrekin, hitzarmen proposamen bat idatzi dute, 2015eko ekaineko epaia betetzearen alternatiba bezala.

Hirigintza eta Ingurumeneko udal zerbitzuak hitzarmenari buruzko txostena egin zuen, eta Hirigintzako udal informazio-batzordeak eztabaidatu zuen. Gero, udal Kontu-hartzaileak fiskalizatu zuen.

Espedientea eta haren aurrekariak ikusita, 12 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehena.- Onartzea Santa Ana Egoitza Fundazioak, Zarautz Lur SA udal sozietateak eta Zarauzko Udalak sinatu beharreko hitzarmena.

Bigarrena.- Alkateak sinatuko du hitzarmena Udalaren izenean, eta egin beharreko tramiteak sustatuko ditu hura ongi bete dadin.

HITZARMENA SANTA ANA FUNDAZIOAREN, ZARAUZKO UDALAREN ETA ZARAUTZ-LUR SA UDAL ENTITATEAREN ARTEAN

(Hirigintzako informazio-batzordeak 2016ko urtarrilaren 11ko bileran diktaminatuta)

Zarautzen, 2016koaren(e)an

BILDU DIRA

Alde batetik: **XABIER TXURRUKA FERNANDEZ** jauna, Zarauzko Udaleko alkate-udalburua eta Zarautz-Lur SAren lehendakaria

Eta bestetik: **ARANTZAZU ZABALEGUI IRIZAR** andrea, adinez nagusia, NAN: 15.156.859-C (jakinarazpenetarako helbidea: San Inazio kalea 2, Zarautz).

PARTE HARTZEN DUTE

Xabier Txurruka Fernandez jaunak, Zarauzko Udaleko alkate-udalburu eta gainera Zarautz-Lur SA udal entitatearen lehendakari gisa, horretarako baimena eman baitiote bai Zarauzko Udalbatzarrak (.....ean egindako bilkuran), bai Zarautz-Lur SAren administrazio-kontseiluak (...ean egindako bileran).

Arantzazu Zabalegui Irizar andreak, Fundación Residencia Santa Ana-Santa Ana Egoitza Fundazioaren lehendakari gisa, horretarako baimena eman baitio Patronatuko Batzordeak (.....ean egindako bileran).

HONAKOA ADIERAZTEN DUTE

Lehena.- 2009ko abenduaren 9an, Zarautz-Lur SA sozietateak eta Santa Ana Egoitza Fundazioak eskritura publiko bat izenpetu zuten, eta horren bidez sozietate publikoak finka bat erosi zion Fundazioari. Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko 2-2 arean -OR Aldapeta- dago finka hori.

Egun berean, Zarautz-Lur SA sozietateak eta Santa Ana Egoitza Fundazioak, Zarauzko Udalarekin batera, erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten.

Eskritura publikoaren eta hitzarmenaren ondorioz, Zarautz-Lur SA sozietateak eta Zarauzko Udalak bere gain hartu zituzten, solidarioki, ondoren laburbilduta datozen konpromisoak:

1.- **250.000€ ordaintzea**, Aldapetan erositako finka ordaintzeko, honela:

- 20.000€, eskrituraren egunean.
- 130.000€, beranduen jota 2012ko abenduaren 31n. Ordainketa egiterakoan, kopuru hori eguneratu egingo da EAeko KPIk izandako aldaketaren arabera. Adierazitako datan ordainketa egin ezean, kopuru hori aurreko formularekin eguneratu beharrean, benetan ordainketa egin arte sortzen den diruaren legezko interesak aplikatuta egingo da, eta, gainera, alde saltzaileak dagokion erreklamazioa egin ahalko du atzerapenak eragindako kalte eta galerengatik.
- 90.000€, lotuta dauden bi lokal entregatzearekin. Lokalak bi solairutan daude, 150 m2 ditu bakoitzak eta Aldapetan eraikitzeak diren eraikinean daude.
- 10.000€, garaje-plaza bat entregatzearekin; garajea ahal dela itxia izango da, eta eraikitzeak den eraikinaren sotoko solairuan egongo da.
- Eskritura sinatzen denetik 48 hilabeteko epean entregatu beharko dira lokalak eta garajea. Hala egin ezean, Fundazioak bi aukera izango ditu: hitzartutakoa bete dadila erreklamatu du, eta horrekin batera atzerapenak eragindako kalte eta galerengatik diru-kopuru bat eskatuko du; edo, bestela, ordainketa espeziean egin orde, aukera izango du kopuru likido bat eskatzeko (100.000€); azken kopuru hori eguneratu egingo da urtez urte, legezko interesak aplikatuta (eskritura egiten denetik ordainketaren egunera arte).

2.- **Santa Ana Egoitzaren eta Aldapetako eraikinean eraikitzeak diren bi lokalen artean pasarela bat egin eta lagatzea.** Hala egin ezean, Fundazioari diru kopuru bat eman beharko zaio, hain zuzen ere, pasabidea kontrata bidez egiteko aurrekontuari dagokion kopurua (160.208,89€), EAeko KPIa aplikatu eta eguneratuta. Hitzarmena sinatzen denean hasi eta ordainketa egiten denean bukatuko da denboraren zenbaketa.

Bigarrena.- 2014ko urriaren 29an, Santa Ana Egoitza Fundazioak epaiketa arrunteko demanda aurkeztu zuen Zarautz-Lur SAren eta Zarauzko Udalaren kontra, 2009ko abenduan izenpetutako kontratua eta hitzarmena ez betetzeagatik.

Demanda aurkeztu zuten momentuan, eskritura publikoa egin zeneko ordainketa zen betetako konpromiso bakarra (20.000€). Ondoren, 2015eko martxoaren 31n, Zarautz-Lur SAk 230.000€ jarri zituen Azpeitiko Lehen Auzialdiko 2. Epaitegian, erositako finkaren prezioari zegokion gainerako printzipal modura.

2015eko ekainaren 30ean, Azpeitiko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 2. Epaitegiak epai bat eman zuen. Epai horretan partzialki onartu zuen Santa Ana Egoitza Fundazioak jarritako demanda, eta Zarautz-Lur SA eta Zarauzko Udala honako kopuruak ordaintzera kondenatu zituen:

- 130.000€, eskrituran dirutan ordaintzea aurreikusita zegoen kopurua.
- 100.000€, espeziean ordaindu behar zen kopurua (lokalak eta garajea).
- 160.208,89€, eraikitzeak ziren pasarelaren aurrekontuari zegokiona.
- Legezko interesak kalte-galerengatik.

Ez alde batek ez besteak ez zuten epaiaren aurkako errekurtsorik aurkeztu.

2015eko irailean Epaitegiak Fundazioari entregatu zizkion Zarautz-Lur SAk jarritako 230.000€-ak. Oraindik ordaintzeko dago pasarelari dagokion kopurua (160.208,99€) eta sortu diren legezko interesak (61.591,51€).

Hirugarrena.- Bai Udaleko, bai merkataritza-sozietate publikoko, bai eta Fundazioaren Batzordeko ordezkariak elkarrizketak izan dituzte, Santa Ana Fundazioaren eta Zarauzko Udalaren erakunde-arteak lankidetzaren baitan, akordio bat egiteko eta 2009an hitzartutakoaren espiritura itzultzeko, izan ere Fundazioak Aldapetako lokal horien beharra dauka Egoitzari zerbitzu hobea emateko.

Momentu honetan, Zarauzko Udalak dagoeneko onartuta dauzka Aldapeta garatzeko behar diren planeamendu eta gauzatze urbanistikoko tresna guztiak. 2015eko apirilaren 24an eraikitze lizentzia eman zuen, akordio honen xede diren lokalak sartuta dauden proiektuan oinarrituta. Hemendik gutxira, Zarautz-Lur SAK lizitazio-prozedura bat hasiko du urbanizazio eta eraikuntzako obrak esleitzeko.

Laugarrena.- Horregatik guztiagatik, aldeek egoki eta beharrezko ikusten dute AKORDIO hau egitea. 2015eko ekainaren 30eko epaia ordezkatu du hitzarmen honek.

Eta horrenbestez,

HONAKO ERABAKI DUTE

Lehen.- Konpromisoa hartzen dute 2009ko abenduaren 9ko eskrituran aurreikusita zeuden lokalen eta garajearen jabetza osoa Santa Ana Fundazioari entregatzeko

Aldeak ados daude 2009ko abenduaren 9an eskritura publikoan hitzartutakoa mantendu eta errespetatzearekin, hots, elkarren artean lotuta dauden bi lokal Fundazioari entregatzearekin. Lokalak bi solairutan daude, bakoitzak 150m² ditu, eta Aldapetan eraikitzeak diren eraikinean daude. Era berean, prest daude garaje-plaza bat ere entregatzeko. *(Hitzarmenari erantsitako planoan zehaztuta dago zein lokal eta garaje entregatuko diren).*

Fundazioari lokalak eta garajeak entregatuko zaizkio, obrak bukatu eta jabetza osoan, eraikinak lehen erabilerako lizentzia lortu ondoren.

Hitzarmen hau sinatzen denetik hasi eta hiru urteko epean entregatuko dira lokalak eta garajea. Dena dela, hitzarmena sinatu eta hurrengo 3 *urteetan* ez bada lagapena egin, Santa Ana Fundazioak 100.000€ ordaintzea erreklamatu ahal izango du, lokalak eta garajea entregatzearen orde. Kopuru hori urtez urte eguneratuko da, legezko interesak aplikatuta, 2009ko abenduaren 9tik hasi (lehen hitzarmenaren data) eta ordainketa egiten den arte.

Erreklamazioa jartzen bada, Udalak eta Zarautz-Lur SA sozietateak hilabete bateko epea izango dute ordainketa egiteko.

Lokalak entregatzen direnean honako elementu hauek guztiak izango dituzte: ur-hartunea, argia, gasa, telefonoa eta internet, ke-hustubideak eta shunt irteerak, kanpoko baoak (fatxada nagusian edo ekialdekoan), barnealdeko zuloa (obra zibila) igogailua jartzeko. Igogailuak bi lokalak elkarrekin komunikatuko ditu eta irteera zuzena emango die kanpoko terrazara publikora (bai igogailutik bai eskaileretatik). Terraza +18,10 kotara egongo da, eraikineko garajeen solairuaren gainean.

Fundazioak dagoeneko 100.000 € jasota dituenez (espeziean egin behar zitzaion ordainketari zegozkionak), Fundazioak konpromisoa hartzen du Zarautz-Lur SARI 72.600€ itzultzeko hitzarmena sinatzen denetik hilabete bateko epean. Kopuru hori honela sortzen da: espezieko entregaren 100.000€-ri kendu egin zaizkio metalikoan ordaindu beharreko 130.000€-ren atzerapenak sortutako interesak.

Bigarrena.- 2009ko abenduaren 9ko eskrituran aurreikusita zegoena baino azalera handiagoa jabetza osoan Santa Ana Fundazioari saltzeko konpromisoa

Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SAK Aldapetaren gauzatze-proiektua aldatuko dute, aurreko klausulan adierazitako lokalak komunikatzen dituen eskaileraren eta igogailuaren kokapena aldatzeko. Horren ondorioz, handitu egingo da lokalek hasiera batean zeukaten azalera (gutxi gorabehera 134 m² gehiago). Udalak onartutako gauzatze-proiektuko ondorengo elementuenak dira azalera horiek: PO.04 (-2 solairua) eta PO.06 (-3 solairua) trastelekuak; 63 (-2 solairua) eta 28 (-3 solairua) garajeetako zati txiki bat; hasiera batean eskailera eta igogailurako aurreikusitako espazioak.

Bi aldeek erabaki dute Santa Ana Egoitza Fundazioari saltzea Aldapetan eraikitzeak diren eraikinaren -2 eta -3 solairuetako lokalen alboan dagoen 134m²-ko azalera gehigarria (aurreko klausulan aipatu da). *(Hitzarmenari erantsitako planoan zehaztuta dago aipatutako azalera).*

Lokaletako obrak bukatutakoan formalizatuko da salerosketa, hilabeteko epean, lokalek lehen erabilerako lizentzia lortu eta gero. Azalera osagarria ere aurreko klausulako lokalen baldintzetan entregatuko da. Azalera osagarriaren emaitzako azken prezioa hau izango da: 651,72€/m² erabilgarri.

Hirugarrena.- Konpromisoa hartzen dute emaitzazko lokalak egokitzeko eta lotura-pasabide bat eraikitzeko, 2009ko abenduko hitzarmenean aurreikusitako pasarelaren orde

Aldapetako eraikina eta urbanizazioa egiteko lanen barruan, Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SA udal erakundeak konpromisoa hartzen dute Fundazioaren jabetzako lokalak egokitzeko, 160.208,89 €-ko prezioan (kontrataren aurrekontua). Egokitzapen-lan horietan sartuko da, baita, pasabide estali eta itxi bat eraikitzea, Santa Ana Egoitzaren behe solairua eta Fundazioari entregatuko zaion lokala (behe solairu bat, -3 solairuan) elkarrekin komunikatzeko.

Lotura-pasabidea gauzatzeko-proiektu baten arabera egingo da. Proiektu hori *Udalak edo Zarautz-Lur SAK* egingo du, baina Santa Ana Fundazioak bere ordezkari modura izendatzen dituen teknikariek koordinatuta. Proiektu hori Aldapeta eraikitzeko proiektuan sartuko da, eranskin gisa. Pasabide horrek, hasiera batean, neurri hauek izango ditu: gutxi gorabehera 10 metroko luzera eta 2,25 m eta 4,70 metro arteko zabalera aldakorra.

Udalak Santa Ana Fundazioaren ordezkarien oniritzia eduki beharko du, lotura-proiektua onartu aurretik.

Santa Ana Fundazioak izendatutako teknikari baten oniritzia eduki beharko dute lokalen egokitzapeneko eta lotura-pasabideko obreri ziurtagiriek (160.208,89€).

Lotura-pasabidea lokalekin eta garajearekin batera entregatuko da, hitzarmen hau sinatzen den egunetik hasi eta hiru urteko epean. Dena den, hitzarmena sinatu eta hiru urtean eraikitzen ez bada Santa Ana Fundazioak 160.208,89€ ordaintzea erreklamatu ahalgo du (pasarela eraikitzeko aurrekontua, 2009ko hitzarmenean aurreikusitakoa), pasabidearen eraikuntzaren eta lokalen egokitzapen-lanen orde. Kopuru hori, gainera, eguneratu egingo da EAEko KPI aplikatuta; 2009ko abenduaren 9an hasiko da zenbaketa (lehen hitzarmenaren egunetik) eta ordainketa egiten den eguna izango da azkena. Erreklamazioa jartzen bada, Udalak eta Zarautz-Lur SAK hilabete bateko epea izango dute ordainketa egiteko.

Laugarrena.- Hitzartutakoa betetzeko bermea. Abala jartzea

Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SA udal entitateak konpromisoa hartzen dute bai ondasunak entregatzeko (lokalak eta garajea), bai pasabidea eraiki eta lokalak egokitzeko eta bai legezko interesa eguneratzeko, banku-abal baten bidez. Abal hori Santa Ana Fundazioari emango zaio hitzarmen hau sinatzen denean.

Abalaren kopuruak ondorengo zenbatekoak bermatu beharko ditu: 100.000 € (*lokalak eta garajea*); 160.208,89 € (*pasabidea eta lokalen egokitzapena*); eta 61.591,51 € (*berandutze-interesak, 2015eko irailean*).

Hitzarmen hau sinatzen denetik pasatuko diren hiru urteetan 260.208,89 €-ren legezko interesa zenbatekoa izango den jakitea ezinezkoa denez, Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SAK konpromisoa hartzen dute hilabete bateko epean horiek ordaintzeko, Santa Ana Fundazioak erreklamazioa egiten duenetik kontaktzen hasita.

Baldin hitzarmen hau sinatu eta hiru urteko epean Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SAK ez badituzte ondasunak entregatzen ezta obrak egiten ere, Santa Ana Fundazioak, abala erabili aurretik, bi hilabeteko luzapena emango du hitzartutakoa betetzeko.

Arrazoi justifikatu bat dagoenean, Santa Ana Fundazioak luzapen-epea luza dezake, abala erabili aurretik.

Bosgarrena.- Egoitzan ibilgailuen sarbide berri bat egiteko konpromisoa

Aldapetako eraikuntza eta urbanizazio obrak egiten diren bitartean Udalak itxi egin beharko du, halaber, egoitzaren egungo sarbidea. Horrenbestez, Zarauzko Udalak eta Zarautz-Lur SA udal entitateak, Aldapetako eraikinaren eta urbanizazio-lanen barruan, konpromisoa hartzen dute Santa Ana Egoitzaren finkara sartzeko sarrera berri bat egokitzeko, Fundazioarentzat inolako kosturik gabe. Sarbide horren zabalera eta oin eta altxaerako baldintza geometrikoak egokiak izango dira asistentzia-jarduerako ibilgailu hornitzaileak bertan sartzeko. Berdin gertatuko da bide-zoruarekin eta beste elementu guztiekin ere, azken batean sarbide egokia edukitzeko.

Sarrera berria finkaren iparraldean egongo da, Arrosategia parkearen aldamenean, eta Aldapetako eraikuntza eta urbanizazio lanekin hasi aurretik egin beharko da.

Udalak eta/edo sozietate publikoak konpromisoa hartzen dute obrak bukatutakoan ibilgailuen egungo sarbidea berriz jartzeko eta Arrosategiaren ondoan egindako berria mantentzeko.

Seigarrena.- Udal hirigintza-planeamendua egokitzeko konpromisoa

Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du dagozkion erabakiak hartzeko eta behar diren agiri urbanistikoak ofizioz izapidetzeko, baita inoiz plan orokorraren aldaketa puntuala egiteko ere, hartara, aurreko akordioetan hartutako konpromisoei erantzun diezaien.

Zazpigarrena.- Segimendua egiteko batzordea eta neurri prebentiboak

Santa Ana Egoitza Fundazioak, Zarautz-Lur SAK eta Zarauzko Udalak segimendu-batzorde bat eratuko dute, obrak egitean ahalik eta gutxien molestatzeko, ahalik eta neurri efikazenenak hartzeko eta lanen garapenari buruzko informazioa emateko. Alde bakoitzak izendatutako pertsonak osatuko dute batzorde hori. Organo parekide horretan gehienez ere lau pertsona egongo dira; horietako bi Fundazioak izendatuko ditu, eta beste biak Zarautz-Lur SAK eta Zarauzko Udalak.

Obrak egiten hasi aurretik, eraikinaren eta Santa Ana Egoitzaren jabetzen egoerari buruzko notario-akta egingo da. Horrela bermatuko da urbanizazio eta/edo eraikuntzako obrak egitean jabetza horietan sortzen diren kalteak konponduko direla.

Zortzigarrena.- Jabetza horizontalaren eskritura

Eraikina Jabetza Horizontalaren Legera egokitzean, berariaz jasota geratuko da lokalen jabeek -Santa Ana Fundazioari jabetzan entregatukoak- eskubidea dutela lokalen fatxadak aldatzeko (*errotuluak jarri, baonk ireki, tratamendu estetikoak, etab.*), partaide diren Jabe Elkartearen baimenaren beharrik gabe.

Bederatzigarrena.- Zarauzko Udalaren erantzukizun solidarioa

Zarauzko Udala izango da sozietate publikoaren erantzule solidarioa, eta berak bermatuko du Zarautz-Lur SAK agiri honetan hartu dituen betebeharrak eta konpromisoak beteko direla eta higiezinak entregatu eta obrak egingo direla.

Hamargarrena.- Notaritzako gastuak, erregistrokoak eta fiskalak

Santa Ana Fundazioaren kontura izango dira lokalen eta garajeen entregako eskriturak sortutako notaritza- eta erregistro-gastuak.

Santa Ana Egoitza Fundazioak EZ du ordaindu beharko higiezinaren entregari dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga hori dagoeneko ordaindu baitzen 2009ko abenduaren 9an, banku-transferentzia bidez; eta halaxe jasota dago Félix María González de Echavari Notarioaren aurrean 2009ko abenduaren 9an formalizatutako eskritura publikoan (protokolo-zenbakia: 1452).

ZARAUTZ-LUR SAKen kontura izango da Hirilurren Balio Gehikuntzaren Zerga.

Hamaikagarrena.- Santa Ana Fundazioa eta Zarauzko Udala erakundeen arteko lankidetzak

Erakunde arteko lankidetzaren baitan, Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du Santa Ana Fundazioari orokorrean egokitu ahal zaizkion laguntzak beste administrazio publikoetan sustatzeko, eta bereziki Egoitza bera eta Zarautz-Lur SAK jabetzan emango dizkion lokalak egokitzeko lor ditzakeenak.

Hamabigarrena.- Azken klausula

Hitzarmen honetako klausulek ordezkatu eta ondorioz gabe uzten dituzte 2009ko abenduaren 9an izenpetu ziren eskritura publikoan eta hitzarmenean adierazitakoak.

Era berean, 2015eko ekainaren 30eko epaia ordezkatzeko balio du hitzarmen honek, eta, beraz, bertako klausulak betetzearekin, aldeek epaia betetzen dela aitortzen dute, eta uko egiten diote dirua edo beste edozein eskubide eskatzeari.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, bertaratutakoek ale bikoitza izenpetzen dute, idazpuruan adierazitako toki eta egunean.

10.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) EH Bildu taldearen mozioa: Euskal Herriak konponbidea. Epaiketa politiko gehiago ez

Undoren, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute. Honela dio:

**“EUSKAL HERRIAK KONPONBIDEA
EPAIKETA POLITIKO GEHIAGO EZ”
MOZIOA**

2015. urteko maiatzaren 28an hasi zen Ernaiko zazpi kideren-tartean Garazi Mugertza zarauztarra- eta Topatu.info-ko kazetari baten kontrako epaiketaren lehendabiziko saioa Espainiako Auzitegi Nazionalean. 2013ko Gazte Danbadaren harira terrorismoa goratzea egotzita. Lehen auzipetuek deklaratu ostean, zutik jarri ziren denak, herri harresia irudikatuz. Auzipetuek “LIBRE” elastikoak kendu zituzten soinetik, eta beste elastiko laranja batzuekin geratu ziren Gasteizen herri harresian atxilotutako zapi gazteen argazkiak azalduz. Epaileari bizkarra emanaz eta “Euskal Gazteria aurrera” aldarriak oihukatuz, herri harresia irudikatu zuten. Epaileak eten egin zuen saioa, epaiketa politikoen kontra protesta egin zutelako.

Epaiketak ekainaren 11n jarraitu zuen, eta ekainaren 16an amaitu zen. Azkenik, ekainaren 30an Espainiako Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen «terrorismoa goratzea» egotzita epaitutako zortzi gazteak.

Ordea, 2015eko maiatzaren 28an Espainiako Auzitegi Nazionalean ospatutako lehen saioaren harira, 50 lagun, tartean bost gazte zarauztar deklaratzera deitu dituzte Gazte Danbadarekin lotutako epaiketan «desordena publikoak» eragitea egotzita. Horren harira inputatu dituzte auzipetuak eta baita publiko gisa bertan izan zirenak ere.

Tokian tokiko epaitegietan deklaratu dute auzipetuek. Lehenbiziko deklarazioak 2015eko azaroaren 20an izan ziren, eta bost zarauztar auzipetuek datorren urtarrilaren 28an deklaratu beharko dute, 09:30ean, Azpeditiko Epaitegian. Deklarazio horien ostean epaileak erabakiko du Madrilen epaituko dituzten ala ez.

Euskal Herrian, konponbide eta bake haizea indartsu dabilen honetan, garai berria zabaltzeko Euskal Herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete eta konponbide baketsua blokeatzen dute honelako epaiketa eta inputazioek. Sufirimendu garaiak gainditu eta elkarriketa, akordioa eta aukera politiko guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argi dago.

Hau guztia kontutan hartuta, Zarauzko Udalak honakoa adierazten du:

- 1.- Euskal Herrian ireki den bide berriak sortu duen ilusioa hauspotzeko eta berau ez zapuzteko pausoak ematen jarraituko dugu. Hauxe bera eskatzen diegu konponbidearen ertz guztietako arduradunei.
- 2.-Ez daitezela epaiketa politiko gehiago egin.
- 3.-Instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela.
- 4.-Aniztasun politikoa eta elkartze, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela.

5.-Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagun guztion artean.

6.-Bost gazte zarauztarrei eta aldi berean, bere senide eta lagunei gure babes eta elkartasunik beroena helarazi nahi diegu.

7.- Amaitzeko, Euskal Herriak behar duen konponbideari egiten ari zaizkion erasoen aurrean, ezinbestekotzat jotzen dugu herritarrek ere paper aktibo eta nagusi bat jokatzeari.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, botoen gehiengoaz, transkribatutako mozioa onartzea.

Une honetan, **Xabier Vazquez** jauna bilkuratik joan da.

b) EH Bildu taldearen mozioa: Gure elkartasuna emakume eta herri kurduarekin

Hurrena, EH BILDU udal taldeak aurkeztutako bigarren proposamena irakurri dute. Hona hemen testua:

“GURE ELKARTASUNA EMAKUME ETA HERRI KURDUAREKIN” MOZIOA

2016ko urtarrilaren 8an izan zen Pakize Nayir, Fatma Uyar eta Sève Demir borrokalari eta burkideen hileta; gobernu turkiarren segurtasun indarrek hil zituzten urtarrilaren 4an Silopin.

Krimen honek Emakumeen Mundu Martxako kideok bereziki kolpatu gaitu. 2015ean krisiek eta gatazka armatuek ez digute eragotzi mundu guztian zehar gure 4. nazioarteko ekintza antolatzea, baita gatazkak zeuden lekuetan ere, landa eremuetan, periferietan, mendietan, erresistentzian diharduten emakumeak dauden eskualdeetan, etab. Nazioarteko ekintzaren baitan, Karabana feminista europarra Turkian kokatuta dagoen lurralde kurduan hasi zen, bertako emakumeei beren gorputz eta lurraldearekiko autonomia eta autodeterminazioa lortzeko borrokan babesa eta indarra emate aldera. Halaber, emakumeen erresistentziak sistema kapitalista, kolonial eta patriarkalaren aurka eraikitako alternatibak ezagutaraztea zen beste helburua.

2015eko martxoaren 6 eta 7an Turkia eta Siria arteko mugaren bi aldetako eskualdeko milaka emakume Nusaybinen bildu ziren (mugak banatutako hirian), eztabaida, kultur ekitaldi eta manifestazioek osatutako foro batean. Jendarte berri baten eraikuntzan eginkizun garrantzitsua duten emakumeek tokiko komunitateen autodefentsan garatzen dituzten esperientzien berri eman zieten elkarri.

Zoritxarrez, azken aldian turkiar gobernuaren eta herri kurduaren arteko gatazka berriro lehertu da, 2015eko ekainean izan ziren hauteskunde turkiarren ostean bake-elkarrizketek porrot egin baitzuten. Gatazkaren fase berri honen ondorioa ehundaka zibilien heriotza (gehienbat emakume eta haurrak), ehundaka zauritu eta

milaka espetxeratu izan da. Udal-batzar herritar kurduak erabaki dute autodefentsa dela lurralde kurduko hirietan estatuko polizia darabilen bortizkeriari aurre egiteko modua. Herritar gobernuetako 17 alkate espetxeratu dituzte, baita Sara Kaya ere, zeinak Nusaybinen hartu gintuen nazioarteko 4. ekintza zela eta.

Autogobernua aldarrikatu duten hiriei eraso egiten diete; etxeratze agindua ezarri zaie, baita argindarra, ura eta komunikazioak eten ere. Kanean dabilen edonor, haurra, adinekoa, haurdun edo gaixorik dagoen emakumea dela ere, frankotiratzailleek hil egiten dute. Zauriren bat jasoz gero, pertsonak ezin dute medikuarengana jo. Jendeak ezin ditu bere hildakoak ehortzi. Etxeratze aginduak herritarrek etxean bahituta mantentzen ditu, jatekorik ere ez dutela; honek osasun egoera larriagotzen du. Hartara, berezko abortoen kopurua gehitu egin da. Nusaybinen etxeratze agindua zazpi aldiz ezarri dute; azkenak, abenduaren 14an ezarri zenak, indarrean dirau oraindik.

Azkenik, indar polizialek hiru emakume ekintzaile kurdu hil zituzten joan den urtarrilaren 4an Silopin. Euretako bat, Séve Demirr, Emakumeen Mundu Martxaren 4. nazioarteko ekintza hasteko ekitaldien koordinatzaile izan zen.

Hilketa politiko hau salatzeke dei egiten diegu herritarrei koordinakundeak antolatutako protesta ekitaldietan parte hartu dezaten eta gutunak bidal diezaizkieten hiru emakume ekintzaile kurduen hilketa gaitzesteko.

Horregatik eta guztiagatik, Udal honek honakoa adierazten du:

- Inpunitatearen amaiera eta krimenaren ardura dutenek justiziaren aurrean erantzun dezaten.
- Ez dezatela ekintzaile politiko, giza-eskubideen defendatzaile eta kazetari gehiago hil.
- Hiri kurduetan amai dadila etxeratze agindua.
- Indar militar eta paramilitarrak erretira daitezela hiri kurduetatik.
- Su-etena eman dadila eta bake-elkarrizketak berriro hasi.
- Pertsonak, baina batez ere emakumeek, pairatzen dituzten abusu, irain eta tratu txarrak amai daitezela.

Martxan jarraituko dugu guztiok libre izan arte!

Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzia eta hamarrean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.